

DEIALDIA / CONVOCATORIA

**INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA
ETXEBIZITZA BATZORDEA**

**COMISIÓN DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA**

- **Eguna:** 2019/09/13
- **Ordua:** 11:30
- **Tokia:** 2. ARETOA

- **Día:** 13/09/2019
- **Hora:** 11:30
- **Lugar:** SALA 2

GAI ZERRENDA

ORDEN DEL DÍA

1.- Legez besteko proposamena
Portugaleteko Errepelega auzoan aurreikusitako
bizitegi-garapena berrikusteari buruz.
([2019/1808](#))

- **Egilea:** Euskal Herria Bildu LT (EH Bildu LT)
Elkarrekin Podemos LT (EP LT)
- **Norentzat:** Ingurumen, Lurralde Plangintza eta
Etxebizitza Batzardea

([11\11\02\01\00566](#))

2. - Legez besteko proposamena
Airearen kalitatearen indizearen inguruan.
([2019/2864](#))

- **Egilea:** Euskal Herria Bildu LT (EH Bildu LT)
- **Norentzat:** Eusko Legebiltzarreko Mahaia

([11\11\02\01\00572](#))

3. - Beste batzuk
Eskariak eta galderak.

1. - Proposición no de ley
Sobre la revisión del desarrollo residencial
previsto en el barrio de Repélega en Portugalete.
([2019/1808](#))

- **Autor:** GP Euskal Herria Bildu (GP EH Bildu)
GP Elkarrekin Podemos (GP EP)
- **Para:** Comisión de Medio Ambiente, Planificación
Territorial y Vivienda

([11\11\02\01\00566](#))

2. - Proposición no de ley
Relativa al índice de calidad del aire. ([2019/2864](#))

- **Autor:** GP Euskal Herria Bildu (GP EH Bildu)
- **Para:** Mesa del Parlamento Vasco

([11\11\02\01\00572](#))

3. - Otros
Ruegos y preguntas.

Eusko Legebiltzarra, 2019ko uztailaren 30a

Parlamento Vasco, 30 de julio de 2019



Portugaletako Errepelega auzoan aurreikusitako bizitegi-garapena berrikusteari buruz (Izapidetzeko onartzea)
(11/11.02.01.00566)

Mahaiak, 2019ko martxoaren 26ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos talde parlamentarioek egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitarara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, egoki irizitako zuzenketa aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliiodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin**

Zioa

Errepelega auzoko bizilagunak Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren birplanteamendu bat eskatzen ari dira, batez ere, Portugaleteko Udalak bere garaian onartu zituen SUNC-1 eta SUNC-2 plan berezien aldaketa. SUNC-1 planean Eusko Jaurlaritzaren aldetik 79 BPE eta hainbat zuzkidura-bizitoki eta SUNC-2 planean sustapen pribatuko gutxi gorabehera 540 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, bere egunean Eusko Jaurlaritzaren eta Portugaleteko Udalaren artean sinaturiko lankidetzaz-hitzarmenean jasotakoaren arabera.

Laburbilduz, auzokideek eremu berde gehiago eskatzen dituzte auzoarentzako, indarrean dagoen planifikazio urbanistikoa aurreikusten den bizitegi-garapen intentsiboaren kaltetan. Eskaera hauek orain arte Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak aurkezturiko urbanizazio-proiektuekin talka egiten dute. Gaurdaino aztertu diren alternatiba ezberdinek ez dituzte legitimoak diren Federico Martinez kaleko eta Grupo El Robleko auzo-elkarteen nahiak asebetetzen. Eskaera hauek erakunde ezberdinen aldetik entzunak izan behar dira, egingarriak eta ez-baztergarriak baitira.

Hau dela eta, ondorengo aurkeztu da batzordean eztabaidatzeko:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

1. Legebiltzarrak euskal jendarteak oro har eta Portugaleteko herriak partikulari Errepelega auzoko kokagune zaharrenetako biztanleekin duen zor soziala eta ingurumenarekikoa

Sobre la revisión del desarrollo residencial previsto en el barrio de Repélega en Portugalete (Admisión a trámite)
(11/11.02.01.00566)

La Mesa, en su reunión del día 26 de marzo de 2019, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por los grupos parlamentarios EH Bildu y Elkarrekin Podemos, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin**

Justificación

El vecindario del barrio de Repelega está reclamando un replanteamiento del Plan General de Ordenación Urbana de la ciudad, especialmente una modificación de los planes especiales SUNC-1 y SUNC-2 aprobados en su día por el Ayuntamiento de Portugalete, que contemplan la construcción de 79 viviendas de VPO y alojamientos dotacionales por parte del Gobierno Vasco en el SUNC-1 y la construcción de aproximadamente 540 viviendas de promoción privada en el SUNC-2, como parte del convenio de colaboración firmado en su día por el propio Gobierno Vasco con el Ayuntamiento de Portugalete.

En síntesis, buena parte del vecindario reclama para el barrio un aumento de las zonas verdes existentes en la zona, en detrimento del desarrollo residencial intensivo previsto en la planificación urbanística en vigor. Estas peticiones chocan con los proyectos de urbanización presentados hasta la fecha por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco. Las distintas alternativas barajadas hasta la fecha no satisfacen las legítimas aspiraciones de las asociaciones vecinales de la calle Federico Martínez y del Grupo El Roble, cuyas peticiones pueden y deben ser atendidas por las instituciones afectadas, ya que no son excluyentes ni irrealizables.

Por todo ello se formula para su debate en comisión la siguiente

PROPOSICIÓN NO DE LEY

1. El Parlamento Vasco reconoce la deuda social y ambiental que la sociedad vasca en general y el municipio de Portugalete en particular tienen con la población de los enclaves más antiguos



aitortzen du, bizitegi-habitat eta bertako biztanleen bizitza-kalitatean garapen industrialak eragin duen hondatze sakon eta jarraituarengatik.

2. Legebiltzarrak hiri-planifikazio moderno batek bizitegi-garapenaren, ekipamenduen eta eremu berdeen arteko oreka egoki bat ahalbidetu behar duela kontsideratzen du, eta planifikazio hau eragiten dien auzokideen benetakoa eta eraginkorra izango den parte hartzearekin egin behar dela, erakundeen erantzukizuna delarik hartu nahi diren hirigintza-konponbideetan kontsentsua eta ahalik eta akordio zabalenak bilatzea.
3. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eta Portugaleteko Udalarari eskatzen die SUNC-1 eta SUNC-2 plan berezien berrikuspen sakon bat egin dezatela, aipatu diren irizpideen baitan, bi helbururekin: batetik, zuzenean eragindako auzokideen beharrei modu egokian erantzutea, eta bestetik, orain arte garatu diren hirigintza-jarduketan ondoriozko kalte sozialak minimizatzen laguntzea.

Edozein kasutan, berrikuspen honek El Robleko auzokideei ostatu emateko diren etxebizitzetan sustapena bermatuko du, egoera prekario batean aurkitzen baitira bizilagun hauek urte askoz ordenazioz kanpo daudelako, eta ezin da ostatu-emate hori gehiago atzeratu. Federico Martinez kaleko eta inguruko bizilagunen bizitza-kalitatea eta ahalik eta eremu berde handiena (Errepelegako zelaiak) babestu behar ditu, baita ere, berrikuspen honek. Zelai hauek ez dira soilik ondare natural bat, auzoaren identitate-ezaugarri bat ere badira, auzokideen topaketa eta ospakizunetarako gune, eta haurren garapen egokirako ezinbesteko gune, beraien interes gorenei zor zaielarik Administrazio publikoa bere eginkizunetan.

2019ko martxoaren 22an

Maidier Otamendi Tolosa, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea. José Ramón Becerra Carollo, Elkarrekin Podemos taldeko legebiltzarkidea

del barrio de Repélega por el deterioro intenso y continuado que el desarrollo industrial ha provocado en el hábitat residencial y en la calidad de vida de sus habitantes.

2. El Parlamento Vasco considera que una planificación urbanística moderna debe propiciar un equilibrio adecuado entre el desarrollo residencial, los equipamientos y los espacios verdes, y que dicha planificación debe realizarse con la participación real y efectiva del vecindario afectado, siendo responsabilidad de las instituciones la búsqueda del consenso y del acuerdo más amplio posible en torno a las soluciones urbanísticas que se pretendan adoptar.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y al Ayuntamiento de Portugalete a acometer una revisión en profundidad de los planes especiales SUNC-1 y SUNC-2 basándose en los mencionados criterios, con el doble fin de que respondan adecuadamente a las necesidades de todos los colectivos vecinales más directamente afectados y de que contribuyan a minimizar el daño social que pudiera derivarse de las actuaciones urbanísticas desarrolladas hasta la fecha.

En cualquier caso, esta revisión garantizará tanto la promoción de las viviendas destinadas al realojo del vecindario de El Roble, en una situación precaria debido a que desde hace muchos años se encuentran fuera de ordenación y el realojo no puede retrasarse más, como la preservación de la calidad de vida del vecindario de la calle Federico Martínez y aledaños, así como la preservación de la máxima extensión posible de la zona verde –las campos de Repélega–, que constituye no solo un patrimonio ambiental sino una seña de identidad del barrio, un lugar de encuentro y celebración de la comunidad vecinal y un espacio indispensable para el adecuado desarrollo de las niñas y niños, a cuyo interés superior se debe la Administración pública en todas sus actuaciones.

22 de marzo de 2019

Maidier Otamendi Tolosa, parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu. José Ramón Becerra Carollo, parlamentario del grupo Elkarrekin Podemos



Portugaleteko Errepelega auzoan aurreikusitako bizitegi-garapena berrikusteari buruz (Zuzenketa)
(11/11.02.01.00566)

Mahaiak, 2019ko apirilaren 25eko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea EH Bildu eta Elkarrekin Podemos talde parlamentarioen legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketa, eta agindu du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Batzordeari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin

EUSKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK TALDE PARLAMENTARIOAK

OSOKO ZUZENKETA

- "1. Eusko Legebiltzarrak aitortu egiten du Errepelega auzoko inguru zaharrenetako herritarrekin dagoen zor soziala eta ingurumenekoa, garapen industrial bizi eta luzeak etxebizitza-parkean eta auzotarren bizi-kalitatean eragindako hondatzearen ondorioz.
2. Eusko Legebiltzarrak beharrezko deritza kaltetutako auzotarren parte hartzea kontuan hartzeari, ahalik eta adostasun handiena bilatuz eskumena duten erakundeen artean planifikazio urbanistiko moderno bat lortzeko, ahalbidetuko duena oreka egokia lortzea garapen erresidentzialaren, ekipamenduen eta aisialdirako guneen artean.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta Portugaleteko Udalari eskatzen die sakon berrikus dezatela SUNC-1 Plan Berezia adierazitako irizpideetan oinarrituz, eremuaren ordenazio urbanistikoa hobetze aldera.

Berrikusketa horrek, nolahi ere, bermatuko du El Robleko auzotarrei ostatu ematera bideratutako etxebizitzaren promozioa, egoera prekarioan baitaude, eta hori eraikitzea ezin baita gehiago luzatu; eta, baita ere, Federico Martínez kaleko auzotarren baldintza urbanistikoak hobetzea, berdeguneei eta gune libreiei dagokienez".

Sobre la revisión del desarrollo residencial previsto en el barrio de Repélega en Portugalete
(Enmienda)
(11/11.02.01.00566)

La Mesa, en su reunión del día 25 de abril de 2019, acuerda admitir a trámite la siguiente enmienda presentada a la proposición no de ley formulada por los grupos parlamentarios EH Bildu y Elkarrekin Podemos, y ordena su remisión a la Comisión de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin

GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS

ENMIENDA DE TOTALIDAD

- "1. El Parlamento Vasco reconoce la deuda social y ambiental que existe con la población de los enclaves más antiguos del barrio de Repélega, consecuencia del deterioro intenso y prolongado que el desarrollo industrial ha provocado en el parque de vivienda y en la calidad de vida de sus vecinos.
2. El Parlamento Vasco considera necesario que se tenga en cuenta la participación del vecindario afectado, buscando el máximo consenso posible entre las instituciones competentes en relación con una planificación urbanística moderna que permita un equilibrio adecuado entre desarrollo residencial, equipamientos y zonas de esparcimiento.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y al Ayuntamiento de Portugalete a acometer una revisión en profundidad del Plan Especial SUNC-1 basándose en los mencionados criterios, con el fin de mejorar la ordenación urbanística del ámbito.

Esta revisión, en cualquier caso, garantizará la promoción de las viviendas destinadas al realojo del vecindario de El Roble, que se encuentra en situación precaria y cuya construcción no debe retrasarse más, así como la mejora en las condiciones urbanísticas del vecindario de la calle Federico Martínez en cuanto a zonas verdes y espacios libres".



Airearen kalitatearen indizearen inguruan
(Izapidetzeko onartzea)
(11/11.02.01.00572)

Mahaiak, 2019ko apirilaren 2ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, osoko bilkuran eztabaidatzeko, EH Bildu talde parlamentarioak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitarara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, egoki irizitako zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baldiodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin

Zioa

Munduko Osasun Erakundearen arabera, airearen kutsadura da mundu mailako heriotza- eta gaixotasun-eragile nagusienetakoa. 2016. urterako estimazioen arabera, 4,2 milioi heriotza goiztiar eragin zituen kutsadura atmosferikoak. Europako Ingurumen Agentziaren Air Quality in Europe 2018 txostenaren arabera, ia milioi erdi heriotza goiztiar eragin zituen airearen kutsadurak Europan, batik bat partikula txikiek. Europako Kardiologia Elkarteak European Heart Journal aldizkari zientifikoan martxoan argitaratu berri duen ikerketa batek, berriz, zenbaki horiek ia bikoiztu ditu, airearen kutsadurak Europa mailan urtean 800.000 heriotza goiztiar eragiten dituela azpimarratuz.

Airearen kalitateaz hitz egiten dugunean, beraz, ingurumen- eta osasun-arloetan dugun erronkarik handienetako batez ari gara. Eta airearen kalitatearen inguruan ari garenean, baditugu, beste batzuen artean, bi aspektu non hobekuntzak behar ditugun: alde batetik, airearen kalitatearen inguruan herritarrei helarazten diegun informazioa, indizeen bitartez egiten dena, eta bestetik, airearen kalitatearen arazo puntualen aurreko protokoloen eta neurrien garapenari dagokionez.

Europa mailan, 2008/50/CE Zuzentarauak airearen kalitatearen inguruko hainbat zehaztapen jasotzen ditu. Bertan, besteak beste, airearen kalitatearen inguruko informazioak herritarren esku egon behar duela esaten da. Estatu mailako legediak, berriz, 39/2017 Errege Dekretuaren bitartez aldatutako 102/2011 Errege Dekretuaren 28. artikuluan, airearen kalitatearen informazio publikoaz hitz egiten du, Europar Ingurumen Agentziaren Indizean oinarrituriko airearen kalitatearen indize bat ezarri behar dela adierazten delarik. Indize horren zehaztapenak, 2019ko martxoaren 28an argitaratu dira, Madrileko Trantsizio Ekologikorako Ministerioak

Relativa al índice de calidad del aire (Admisión a trámite)
(11/11.02.01.00572)

La Mesa, en su reunión del día 2 de abril de 2019, acuerda admitir a trámite para su debate en pleno la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin

Justificación

Según la Organización Mundial de la Salud, la contaminación del aire es uno de los principales agentes causante de muerte y enfermedades a nivel mundial. Según las estimaciones para el año 2016, la contaminación atmosférica provocó 4,2 millones de muertes prematuras. Según el informe Air Quality in Europe 2018 de la Agencia Europea de Medio Ambiente, la contaminación del aire, especialmente las partículas finas, ha provocado cerca de medio millón de muertes prematuras en Europa. En cambio, un estudio de la Asociación Europea de Cardiología publicado en marzo en la revista científica Heart Journal casi duplica esas cifras y destaca que la contaminación del aire provoca 800.000 muertes prematuras al año en Europa.

Cuando hablamos sobre la calidad del aire, estamos hablando de uno de los principales desafíos al que nos enfrentamos en el ámbito medioambiental y en el de la salud. Y cuando hablamos sobre la calidad del aire tenemos, entre otros, dos aspectos en los que necesitamos mejoras: por una parte, en la información que hacemos llegar a la ciudadanía sobre la calidad del aire, que se hace por medio de índices, y por otra parte, en relación con el desarrollo de los protocolos y medidas ante problemas puntuales de calidad del aire.

A nivel europeo, la Directiva 2008/50/CE recoge algunas especificaciones sobre la calidad del aire. Entre otras cosas, se dice que la información relativa a la calidad del aire tiene que ser accesible para la ciudadanía. En la legislación estatal, en cambio, en el artículo 28 del Real Decreto 39/2017 por el que se modifica el Real Decreto 102/2011 se habla de la información pública sobre la calidad del aire, y se indica que se aprobará un índice de calidad del aire basado en el índice de la Agencia Europea de Medio Ambiente. Las especificaciones de dicho índice se han publicado el 28 de marzo de 2019, por medio de una orden del Ministerio para la Transición



emandako agindu honen bitartez: Orden TEC/351/2019, de 18 de marzo, por la que se aprueba el Índice Nacional de Calidad del Aire.

Agindu horren edukia aztertuz eta Jaurlaritzak eskaintzen duen informazioarekin kontrastatuz (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/airea-ingurumena/>), ez da zaila jabetzea Jaurlaritzak erabiltzen dituen indizeak ez datozela bat ez Europako Ingurumen Agentziak 2017. urtetik aurrera erabiltzen duen European Air Quality Index delakoarekin edo Madrilek TEC/351/2019 aginduan onartu berri dituen indizeekin.

Irregularitasun hau dela eta, gure herritarrei informazio desagokia iristen zaie, airearen kutsaduraren aurkako neurriak hartzea zailduz. Adibide bat jartzearen, TEC/351/2019 aginduaren arabera, airearen kalitatea neurtzeko sareak PM 2,5 partikulek $30 \mu\text{g}/\text{m}^3$ baloreak ematen badu leku jakin batean, airearen kalitatea txartzat hartu beharko genuke leku horretan, baina Jaurlaritzaren indizeak jarraiki, airearen kalitatea ona dela iragarriko da, segurtasun-sentsazio faltsua zabalduz.

TEC/351/2019 aginduan ezartzen diren parametroak kontutan hartzen baditugu eta azken urteetako euskal airearen kalitatea neurtzeko sarearen baloreekin alderatzen badugu, ondorioztatu dezakegu oso probablea dela Euskal Herriko hainbat herri, hiri eta hiriburuetan airearen kalitatearen indizea txarra izatea aurrerantzean maiz, neurriak ez badira hartzen bederen.

Dena den, airearen kalitatearen inguruko informazioaz ari garenean, kontua ez da soilik indize sintetikoak Europar Batasunarekin eta Estatuarekin sinkronizatuak izatea, baizik eta gai kutsakorrei ezarritako informazio edo alertaren atalase-mailak gaintzen direnean, herritarrei begira komunikazio azkarra izatea eta protokolo jakin batzuen bitartez neurri zehatzak hartzea. Informazio eta alerta atalase-maila hauek erregelamendu bidez zehaztuak badaude ere, betetze maila ez nahikoa da gure lurraldean. Zentzu horretan, udalerrietan egin behar den lana garatu eta errazteko, zentzuzkoa iruditzen zaigu irizpide edo gidalerro berdinekin lanean aritzea euskal administrazio guztiak, Jaurlaritzaren medioak, jakintza eta laguntza ezinbestekoak direlarik, elkarlana eta koordinazioaren bitartez.

Hori horrela, EH Bildu legebiltzar-taldeak honako legez besteko proposamena egiten du.

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

1. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio, hilabeteko epean eta agindu edo dekretu

Ecológica de Madrid: Orden TEC/351/2019, de 18 de marzo, por la que se aprueba el Índice Nacional de Calidad del Aire.

Si analizamos la información contenida en dicha orden y la contrastamos con la información que ofrece el Gobierno Vasco (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/airea-ingurumena/>), no es difícil darse cuenta de que los índices que utiliza el Gobierno Vasco no coinciden con los que utiliza la Agencia Europea de Medioambiente desde 2017 con el denominado European Air Quality Index (Índice de Calidad del Aire Europeo) o con los nuevos índices aprobados por Madrid mediante la orden TEC/351/2019.

Como consecuencia de dicha irregularidad, a nuestra ciudadanía le llega información inadecuada, lo que dificulta la adopción de medidas contra la contaminación del aire. Por poner un ejemplo, según la orden TEC/351/2019, si la red de control de la calidad del aire da valores de $30 \mu\text{g}/\text{m}^3$ para las partículas PM 2,5 en un lugar determinado, la calidad del aire debería considerarse mala en dicho lugar, pero siguiendo los índices del Gobierno Vasco se anunciará que la calidad del aire es buena, difundiendo una falsa sensación de seguridad.

Si tenemos en cuenta los parámetros que se establecen en la orden TEC/351/2019 y si los comparamos con los valores de la red para medir la calidad del aire de Euskadi de los últimos años, podemos concluir que es muy probable que muchos pueblos, ciudades y capitales de Euskal Herria tengan en adelante frecuentemente un mal índice de calidad del aire, al menos si no se adoptan medidas.

En cualquier caso, cuando hablamos sobre información relativa a la calidad del aire, la cuestión no es solo contar con índices sincronizados con la Unión Europea y el Estado, sino también que, cuando se superen los niveles umbral de información o alerta establecidos para los agentes contaminantes, se cuente con una comunicación rápida y se adopten medidas concretas por medio de unos protocolos determinados. Aunque esos niveles umbral de información y alerta están establecidos reglamentariamente, el grado de cumplimiento es insuficiente en nuestro territorio. En este sentido, con el fin de desarrollar y facilitar la labor a realizar en los municipios, nos parece razonable trabajar con los mismos criterios y directrices en todas las administraciones vascas, siendo imprescindibles los medios, el conocimiento y la colaboración del Gobierno, por medio de la colaboración y coordinación.

Así, el grupo parlamentario EH Bildu presenta la siguiente proposición no de ley.

PROPOSICIÓN NO DE LEY

1. El Parlamento insta al Gobierno a que, en el plazo de un mes y por medio de una orden o



bitartez, TEC/351/2019 aginduan jasotakoa garatu dezala, gutxienez, bertan ezartzen den kutsatzaileen zerrenda eta kutsatzaile horien koloreetako sailkapena eta horien balio-mugak errespetatuz.

2. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio euskal herri edo hirietako airearen kalitatea kudeatzeko planak egiteko, kutsadura atmosferikoaren aurreko udal-protokoloak idazteko eta herritarrei informazioa helarazteko irizpideak argitara ditzala hiruhilabeteko epean.
3. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio 20.000 biztanletik gora dituzten hiriek eta potentzialki airearen kutsadura eragiten duten aktibitateak dituzten udalerriek airearen kalitatea kudeatzeko planak eta hiri-kutsadura atmosferikoaren aurreko udal-protokoloak (herritarrei airearen kalitatearen inguruko informazioa heltzeko mekanismoak barnebilduko dituztenak) izan ditzatela, administrazioen arteko elkarlanean, eta kooperazioan lidergoa hartu dezala.

Gasteizen, 2019ko martxoaren 29an

Mikel Otero Gabirondo, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea

decreto, desarrolle el contenido de la orden TEC/351/2019, al menos la lista de contaminantes y su clasificación por colores y respetando sus límites de valores.

2. El Parlamento insta al Gobierno a que, en el plazo de tres meses, publique criterios para la elaboración de planes de gestión de la calidad del aire de los pueblos y ciudades vascas, para la redacción de protocolos municipales ante la contaminación atmosférica y para hacer llegar la información a la ciudadanía.
3. El Parlamento insta al Gobierno a que las ciudades con más de 20.000 habitantes y los municipios con actividades que potencialmente provocan contaminación del aire cuenten con planes de gestión de la calidad del aire y con protocolos municipales ante la contaminación atmosférica urbana (que incluyan mecanismos para que la información sobre la calidad del aire llegue a la ciudadanía), con colaboración entre las administraciones, y que asuma el liderazgo en la cooperación.

Vitoria, 29 de marzo de 2019

Mikel Otero Gabirondo, parlamentario y portavoz suplente del grupo EH Bildu



Airearen kalitatearen indizearen inguruan
(Zuzenketak)
(11/11.02.01.00572)

Mahaiaik, 2019ko apirilaren 25eko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea EH Bildu talde parlamentarioaren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin

ELKARREKIN PODEMOS TALDE
PARLAMENTARIOA

OSOKO ZUZENKETA

- "1. Eusko Legebiltzarraren ustez, botere publikoek zaindu egin behar dute aire atmosferikoaren kalitate egokia bermatzen dela, eta arnasten duten airearen kalitateari buruz herritarrei ematen zaien informazioa era erraz batean eskuratzeko moduan egon dadila.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, hilabeteko epean, egokitu ditzala Euskadiko Airearen Kalitate Sarearen parametroak TEC/351/2019 Aginduan jasotako lege-preskripzio berrietara, eta sare horrek orobat eman dezala Osasunerako Mundu Erakundeak gomendatutako airearen kalitateari buruzko balio gidariak betetzeari buruzko informazio publikoa.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, hiru hilabeteko epean, argitara ditzala eskal udalerrietan airearen kalitatea kudeatzeko planak egiteko irizpideak, bai eta udal-protokoloak idaztekoak ere, kutsadura atmosferikoa dela-eta informazio eta alerarako legezko atalaseak gainditzen diren kasuetarako.
4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lankidetzan jardun dezala 20.000 biztanletik gora dituzten udalerriekin, edo atmosfera kutsa dezaketen jarduerak egiten dituztenekin, bi urteko epean den-denek izan ditzaten airearen kalitatea kudeatzeko planak, eta kutsadura atmosferikoaren aurrean jarduteko udal-protokoloak, barne izango dituztenak herritarrei informazioa emateko jarraibideak, kasu bakoitzean kutsadura gutxitzeko hartu beharreko neurriak eta Osasuneko eta Ingurumeneko sailen arteko funtzio-banaketa, bakoitzak esleituta dituen

Relativa al índice de calidad del aire (Enmiendas)
(11/11.02.01.00572)

La Mesa, en su reunión del día 25 de abril de 2019, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin

GRUPO PARLAMENTARIO ELKARREKIN PODEMOS

ENMIENDA DE TOTALIDAD

- "1. El Parlamento Vasco considera que los poderes públicos deben velar para garantizar una adecuada calidad del aire atmosférico y para hacer accesible de forma sencilla la información que se proporciona a la ciudadanía sobre la calidad del aire que respira.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en el plazo de un mes, adecúe los parámetros de la Red de Calidad del Aire de Euskadi a las nuevas prescripciones legales contenidas en la Orden TEC/351/2019, y que dicha red también proporcione información pública acerca del cumplimiento de los valores guía sobre calidad del aire recomendados por la Organización Mundial de la Salud.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en el plazo de tres meses, publique criterios para la elaboración de planes de gestión de la calidad del aire en los municipios vascos, así como para la redacción de protocolos municipales en caso de superación de los umbrales legales de información y alerta por contaminación atmosférica.
4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que colabore con los municipios vascos de más de 20.000 habitantes, o aquellos con actividades potencialmente contaminantes de la atmósfera, para que en un plazo de dos años todos ellos cuenten con planes de gestión de la calidad del aire y con protocolos municipales ante la contaminación atmosférica, que incluyan las pautas de información a la ciudadanía, las medidas restrictivas de la contaminación que se deben adoptar en cada caso y el reparto de funciones entre los Departamentos de Salud y Medio Ambiente, en

eskumenen arabera".

GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS

ENMIENDA DE TOTALIDAD

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que en el plazo de un mes implante los índices de calidad del aire según el índice de calidad europeo y lo divulgue a la ciudadanía facilitando su conocimiento y comprensión.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en el plazo de tres meses, facilite una metodología a los municipios vascos que impulse la elaboración de planes y programas para la protección de la atmósfera y para minimizar los efectos negativos de la contaminación atmosférica según se establece en la normativa vigente.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a liderar la cooperación interadministrativa en la mejora de la calidad del aire y a apoyar el desarrollo de planes y programas de competencia municipal en los pueblos y ciudades vascas, especialmente en aquellas zonas en las que los niveles de uno o más contaminantes regulados puedan sufrir episodios puntuales de superación".

función de las competencias que cada cual tenga atribuidas".

EUZKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK TALDE PARLAMENTARIOAK

OSOKO ZUZENKETA

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hilabeteko epean ezar ditzala airearen kalitate-adierazleak, europar kalitate-adierazlearen arabera, eta herritarrei helarazi diezazkiela, horien ezagutza eta ulermena errazteko.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hiru hileko epean ahalbidetu diezaiela euskal udalerriei metodologia bat, bultzatuko duena planak eta programak egitea atmosfera babesteko eta kutsadura atmosferikoaren ondorio negatiboak gutxitzeko, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lideratu dezala administrazioarteko lankidetzaren airearen kalitatea hobetzeko, eta babes dezala udal eskumeneko planak eta programak garatzea euskal herri eta hirietan, araututako kutsatzaile baten edo gehiagoren mailak aldi berean behin gaintu ditzaketen zonetan bereziki".